



Ebazpena, 2016ko martxoaren 14koa, Hezkuntzako Sailburuordearena, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerakoa, ezartzen duen Diseinu Titulurako ikasketetatik maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoa, ezartzen duen Diseinuko Goi-Mailako Titulua lortzeko ikasketetarako egokitze-kurtsoa arautzen duena.

Maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretuak, Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukiak arautzen dituena, bere laugarren Xedapen gehigarriko 3. puntuan xedatzen du Diseinu Titulua izanda Diseinuko Goi-Mailako espezialitate bereko Titulua eskuratu nahi dutenek, gutxienez, 180 kredituen onartzea izango dutela eta dagokion Hezkuntza administrazioak ezartzen duen gainontzeko ikasketak egin beharko dituztela.

Beste aldetik, azaroaren 21ko 238/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan, Diseinu grafiko eta Barneen diseinuko espezialitateetako Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak ezarri eta ikasketa-planak onartzen ditu.

Adierazitakoa kontuan hartuta, eta apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenari jarraitu, Hezkuntza sailburuordeak aipatu egokitze-kurtsoa arautu nahi du eta, beraz, zera

EBAZTEN DU

1- Xedea eta ezartzeko esparrua.

Diseinuko Goi-mailako Titulua eskuratzeko egokitze-kurtsoa eta onarpen baldintzak arautu eta Vitoria-Gasteizko ADGERako 2016-17 ikasturterako ikaspostuak onartzea.

2- Eskainitako ikaspostuak.

Behin matrikulazio-epea bukatuta, taldeak betetzeko geratuko diren ikaspostu hutsak eskainiko dira.

Hori gerta baledi, ADGEko zuzendaritzak ikaspostu hutsen kopurua eta espezialitatea jakitera emango ditu 2016ko uztailaren lehenengo astean.

3- Onarpen baldintzak.

Irailaren 24ko 1469/1999 Errege Dekretuan araututako Diseinuko Tituluaren jabe izatea, Barneen diseinuaren edo Diseinu grafikoaren espezialitateetan.

4- Formakuntzaren ezaugarriak.

Titulua lortzeko gainontzeko ikasketak burutuko dira era honetan banatutako 60 ECTS kreditu betez:

- 24 ECTS kreditu ikasgaietan
- 18 ECTS kreditu ikasketa amaierako lanean
- 18 ECTS kreditu enpresetan egindako praktketan



5- Eskaerak

Egokitze-kurtsoan onartzeko eskaera egin nahi duten ikasleak Vitoria-Gasteizko Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskolan egin beharko dute 2016ko maiatzaren 16 eta 20 bitartean, I Eranskinean agertzen den ereduarekin. Ikasketak EAEn egin dituztenei ofizioz gehituko zaie batezbesteko nota agertzen den ziurtagiri akademikoa.

6- Ikaspostuen esleitzea

6.1. Espezialitate bakoitzeko onartutako behin-behineko zerrenda uztailaren lehenengo astean argitaratuko da Vitoria-Gasteizko ADGEEn.

6.2. Ikasketak ADGEEn egin dituztenek beste eskaera guztien aurretiko lehentasuna izango dute.

6.3. Espezialitate bakoitzeko ikaspostu hutsak espediente akademikoaren batezbesteko notaren arabera esleituko dira, ikaspostua lortu gabeko eskatzaileak geratu daitezkeelarik.

6.4. Puntuazioen arteko berdinketa emanaz gero, ikaspostua zozketa publikoan esleituko da.

6.5. Behin-behineko zerrendari eskatzaileek erreklamazioa egin ahalko diote hau argitaratu eta 48 orduko epean.

6.6. Behin-betiko zerrenda behin-behinekoa argitaratu eta aste bateko epean argitarako da, gehien jota.

6.7. Behin-betiko zerrenda argitaratu eta hilabeteko epean honen kontrako gorako errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza Berriztatze zuzendariari.

7- Matrikularen burutzea

Egokitze-kurtsorako matrikula irailaren lehen astean egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 14an

Arantxa Aurrekoetxea Bilbao

HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA



I ERANSKINA

IZEN-EMATEA EGITEN DUEN IKASTETXEA:



IKASTURTEA 2016-2017

(Ikasleak betetzeko)

IKASLEAREN DATUAK

Abizenak:.....

Izena:.....

Jaiotze data:.....NAN:.....

Helbidea:

PK/Herria.....Lurraldea.....

Telefonoa/e-mail

Diseinuko goi-mailako ikasketak egin zituen ikastetxea:

.....

ADIERAZTEN DU urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerakoa, ezartzen duen Diseinu Tituluaren jabetuna dela eta,

ESKATZEN DU maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoa, ezarritako Diseinuko Goi-Mailako Titulua lortzeko ikasketetarako egokitze-kurtsoan onartua izatea, honako espezialitatean:

 Barneen diseinua

 Diseinu grafikoa

Eskatzailearen sinadura:

(Ikastetxeak betetzeko)

Eskaera zenbakia:

Sarrera eguna:

.....n, 2016korenn.

IDAZKARIAK

Ikastetxearen zigilua